

EITB GALA

Euskarazko fikzioaren aldeko konpromisoa aldarrikatzeko gala

IRENE ELORZA

Euriak ez zuen zapuztu atzo Victoria Eugenia antzokian ospatu zen EITB Gala. Agintari politikoez gain, zinema, telebista eta kulturako pertsona ezagun ugari bildu zituen ekitaldiak. Bertan, K2000 ekoiztetxeak EITBrentzat ekoiztutako *Alardea* fikziozko telesailaren 1. eta 2. kapituluak ikusi ahal izan ziren.

EITBko zuzendari Eduardo Barinagak egin zituen galaren aurkezpen lanak. Lehenik eta behin, Donostia Zinemaldiak aurtengo egoeran erakutsi duen zinema eta kulturarekiko konpromisoa azpimarratu zuen. Ildo beretik, berak zuzentzen duen kate publikoak duen gizartearekiko konpromisoa berretsi zuen. Horren harira, udazken honetan euskarazko fikziozko hiru telesail estreinatuko dituztela aurreratu du.

Estreinaldi horien artean egongo da atzoko galan ikusgai egon zen telesaila, *Alardea*. K2000ko ekoizle exekutiboak den Blanca Baena izan da telesailaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia. Atzokoan Baenak esker-tu egin zuen EITBk fikzioaren alde egiten duen apustu irmoa: "Lantalde osoari eta aktoreei bereziki eskerrak eman nahi dizkiet historiarekin izan duten konpromisoagatik eta eginda-



K2000ko ekoizlea eta telesailaren sortzailea, Blanca Baena, telesailaren lantaldeaz inguratuta.

GARI GARAIALDE

ko esfortzuagatik; pandemia batek ez gaitu gu geldituko!", esan zuen.

David Pérez Sañudok zuzendariak hitza hartu eta zera argitu zuen: "Alarde mistoaren aldeko ikuspegia du telesailak". Proiektua "errespetu handienarekin eta inor iraintzeko

asmorik gabe" egin dutela gaineratu zuen zuzendariak.

Azkenik, Klara Badiola aktoreak lantaldearen izenean hartu zuen hitza esateko historiak hasieratik harrrapatu zituela, pandemia dela-eta filmazioa gogorra izan den arren "zo-

ragarria" izan delako elkarrekin lan egitea. "Alardearen ildotik zenbait gai ateratzen dira telesailan: duintasuna, indarra, harremanak, errespetua, eta abar; eta nire pertsonaiak esaten duen bezala: Egin behar dena egin behar da beti".



Alardearen auzia fikzio bihurtuta

David Pérez Sañudok zuzendutako *Alardea* telesailaren atal berezia estreinatu zen atzo, EITB Galarean baita.

ETB1en estreinatuko dute telesaila, udazkenean. Haur eskolako irakaslea den Amaia (Itziar Ituño) istorioa du oinarri kontakizunak. Amaia, bere herriko jaietako alardean desfilatze eskubidearen alde borrokatuko da, auzokide talde batekin.

Mende laurden batez Euskal Herrian errotuta egon den jai horren inguruan sortu den gatazkan inspiratuta dago telesaila. Bertan, gai unibertsalak eta gaurkotasan osoko gaiak planteatzen dira, hala nola belaunaldien arteko talka eta herri txikitian bizi den presio soziala.

Itziar Ituño aktoreaz gain, Carmen Climentek, Klara Badiolak, Inigo Aranburuk, eta German Alzarazuk osatzen dute aktore nagusien zerrenda.

PROYECCIONES RTVE



Fernando López Puig (segundo por la izquierda), director de contenidos de RTVE junto con el equipo de la película.

MONTSE CASTILLO

Y los estrenos continúan hoy

En un año donde la crisis que padecemos ha obligado a reducir significativamente el número de películas y de secciones que ha acogido el Festival respecto a ediciones anteriores, RTVE ha intensificado su compromiso con el certamen donostiarra organizando no solo una proyección, como era habitual hasta el año pasado coincidiendo con la celebración de su gala anual, sino que en esta edición los espectadores donostiarras podrán disfrutar de hasta tres títulos participados por la corporación pública. Tras al estreno mundial de *Explota, explota* que tuvo lugar anoche en el Kursaal 2, hoy será el turno para *Sentimental e Inés del alma mía*. La primera es la última obra de Cesc Gay (viejo conocido de San Sebastián, donde ha presentado filmes como *En la ciudad* o *Truman*). En esta ocasión Gay adapta su propia obra de teatro "Los vecinos de arriba" en una película que podrá verse a las 21.30 en el Teatro Victoria Eugenia. Previamente, a las 15.30, ese mismo escenario acoge el estreno de la miniserie *Inés del alma mía*, inspirada en el *best seller* de Isabel Allende y dirigida por el cubano Alejandro Bazzano.

Fiesta, que fantástica, fantástica esta fiesta

JAIME IGLESIAS

"Cuando pensamos en este proyecto lo concebimos con el deseo de que la gente saliera del cine cantando y bailando. Jamás pudimos imaginarnos que esta película iba a ser vista

con mascarilla". Estas palabras de Mariela Besuievsky, productora de *Explota, explota*, reflejaron el sentir ambivalente que buena parte del equipo de la película exhibió anoche durante la presentación del film. Sin embargo, aún condicionados por

las circunstancias, el tono general del evento fue festivo. No podía ser de otro modo ante una película imbuida del espíritu de Raffaella Carrà cuyas canciones son la razón de ser de un largometraje "divertido y vitalista, muy oportuno para estos

tiempos que corren", según lo definió Fernando López Puig, director de contenidos de RTVE.

La película, dirigida por el realizador uruguayo Nacho Álvarez y protagonizada por Ingrid García-Jonsson, Natalia Millán y Fernando Tejero (todos ellos presentes anoche en el Kursaal 2), es la primera de las tres producciones participadas por RTVE que la cadena pública trae este año a Donostia.

García-Jonsson habló en nombre de los intérpretes de la pelu-

la para compartir con el público su entusiasmo ante "un trabajo donde hemos puesto todo nuestro ánimo, nuestro sudor y nuestras lágrimas con el objetivo de que lo paséis bien". La emoción de la actriz fue compartida por el director del largometraje, quien agradeció a los asistentes "vuestra valentía por venir al cine en un año difícil que seguro que, entre todos, conseguiremos superar". El arrebatado y frenético repertorio de la Carrà hizo el resto convirtiendo la noche en una "Fiesta".